

MUXIKA » INAMA

Inamako ordezkariak epaiketa batean deklaratu du

Gernikako epaitegiko epaile bat muxikar batzuek dituzten gaixotasunak Inamak sortu dituen ala ez ikertzen ari da

DANEL LAUZIRIKA

Atzo goizean Jose Manuel Sanchez Finsa-Inamako kudeatzaileak enpresaren aurkako epaiketa batean inputatu gisa deklaratu behar izan zuen. Epaiketa Gernika-Lumoko epaitegian izan zen.

Epaiketa hori SOS Muxika herritarren elkarteak Inamari 2005ean jarritako salaketa baten ondorioada. Salaketa horretan SOS Muxikak ingurugiroaren aurkako delitua egitea eta osasun publikoari kalte egitea leporatzen dio enpresa galiziarrari. Epailea Muxikako bizilagun batzuek pairatzen dituzten gaixotasunak Inamaren jarduerak sortu dituen ala ez ikertzen ari da.

Atzoko saioa Inamako kudeatzailearen deklaraziora mugatu zen. Defentsako abokatuaren, akusazio gisa aurkeztu den SOS Muxika elkarteko abokatuen eta Gernikako 3. epaitegiko epailearen galderak erantzun zituen.

Medikuaren probak

Muxikar batzuek pairatzen dituzten gaixotasunak Inamak isurtzen dituen elementuek sortu dituzten ala ez jakiteko, atzo Muxikako bi bizilaguniprobak egin zizkien auzitegiko medikuak.

Proba horiek egiteko agindua epaileak berak eman zuen, joan den maiatzean. Proba horiek Inama ondoko bizilagun gehiagori egin dizkietela jakinarazi dute.

© Busturialdeko Hedabideak S.L.
Tel.: 946187299 Faxe.: 946881193
E-posta: busturialdea@busturialdekohitza.info
Zubiaurtar Kepa, 72 Bermeo



Internet Ehuntzen S.L.-k garatutako webgunea